

## ESANAK

## BATASUNAREN IRITZIA

## JUAN JOSE IBARRETXE

(Eusko Jaurlaritzako lehendakaria)

«Gobernatzeko edo oposizioan aritzeko ezinbestekoak dira konpromiso etiko eta moralak»

## XABIER ARZALUZ

(EAJ)

«Gauzak uste baino hobeto atera dira; sarreran baino itxaropentsuago nago orain»

## BEGOÑA ERRAZTI

(EA)

«Bide bat zabaldu dugu segurtasunean, baina Legebiltzarrean eztabaidatuko dira ideia politikoak»

## RAMON JAUREGI

(PSE-EE)

«Deklarazio etikoa erronka bat izango da Batasunarentzat; onartzen ez badu ondorioak izango ditu»

## CARLOS ITURGAITZ

(PP)

«Konpromisoa hartu dugu Batasunak ez dezan alkatetzarik lortu demokratok zatituta gaudelako»

## «Aste beltza» biribiltzeko

F.I. | GASTEIZ


Batasunak bileraren beste aurpegia azaldu du. Ibarretxeri galdegin dio ea zer egingo duen ezker abertzaleko zinegotzien eskubideak defenditzeko. «Nola pentsatzen dute EAJk, EAK eta lehendakariak bermatzea Batasunak parte hartuko duela udal hauteskundeetan?», galdetu zuen Arnaldo Otegi, Ibarretxeren bilkura hasi aurretik. Atzoko bilerari Ajuria Eneko Itunaren

itxura hartu dio Otegi. Esan zuenez, euren eskubideak bermatzeko eta Batasunekoak ez errespetatzeko zer egingo zuten hitz egingo zuten bileran.

Ibarretxek deitutako bilkura, hala ere, aste honetan izan diren beste gertakarien ondoan jarri zuen Otegi. Bata bestearen ondoan jarrita, aste honek «izugarritzko garrantzi politiko» izan duela ondorioztatu zuen. Gogora ekarri zuen asteartean PPK eta PSOE hitzartu zutela Batasuna lege kanpo uzteko urratsei ekitea. Hori Kontzertuari buruzko akordioarekin harilkatu zuen. Izan ere, Otegi uste du Jaurlaritzak amore eman duela eta Espainiareki-

ko «menpekotasun ekonomikoa» izenpetu zuela. Halaber, Herrizaingo Sailak LABek gaurko deitu zuen manifestazioa atzeratu izanak erakutsiko luke, Otegi esan zuenez, Jaurlaritzarentzat ezker abertzaleko kideak «bigarren mailako herritar» direla. Atzoko bilera astea biribildu duen kontua izan da Otegiarentzat.

Egoera beltza marraztu zuen Otegi. Haatik, kezkarriena Jaurlaritzaren jokabidea iruditu zaio. «Jaurlaritzak ez du proiekturik ez estrategiarik egoerari aurre egiteko. Egungo markoa kudeatu besterik ez dute nahi, inolako duintasunik gabe», salatu zuen.



THOR CASTRO / EFE

Juan Jose Ibarretxe, bilera ondoko agerraldian, Ajuria Enean.



RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS

Jauregi, Arzalluz, Balza eta Errazti, bilerara sartzeko unean.

## Ajuria Eneko argazkiak

**IRUDIA.** Leku ezberdinetan azaldu ziren lehendakaria eta alderdietako ordezkariak

F.I. | GASTEIZ

**A**juria Eneko Itunaren itxura guztia ezabatu nahi izan zuen Juan Jose Ibarretxe lehendakariak. Bileraren argazkariak ez zuen onartu, eta, argazkilariak eta telebistako kamerak, alderdietako eta erakundeetako ordezkariak Lehendakariatzara sartzen ateratako irudiekin konformatu ziren, hala behartuta.

Sarreraren bezala, mintzaide guztiak bilduko zituen argazkariak ez zen izan bilkuraren ostean. Lehendakariak eta alderdi politikoetako orde-

kariak hitz egin zuten, nork bere aldetik. Alderdien ordezkariak hitz egin zezaten Lehendakariatzako sarrera gela aukeratu zuten protokoloek. Han ez zegoen Ajuria Eneko ikurrik, ezta Hitzarmeneko irudia gogora zezakeen ezer ere. Pintura bat atzean zutela hitz egin zuten guztiak.

Lehendakariari, ordea, ohiko lekua eman zioten. Bere atzean garbi azaltzen zen Ajuria Eneko egoitza zela agerian uzten zuen idatzia. Baina bakarrik azaldu zen, itunkiderik ez dagoela agerian uzteko edo.

## Erabakirik ez dela hartu nabarmendu du EAK

Ibarretxek eta Erraztik bilera «emankorra» izan zela adierazi zuten. Haatik, nabarmendu zuten segurtasuneko kontuak lantzeko batzordea eratu dela, eta gatazkari irtenbideak emateko ekinbideak Gasteizko Legebiltzarrean hartu behar direla jakinarazi zuten.

Batasunari alkatetzak eragozteko konpromisoa dagoenik ukatu egin zuen EAK ordezkariak. Esan zuen Eudelek deklarazioa egin behar duela lehenengo, eta ondorengoak gero ikusiko direla. Gainera, Batasuna bakartzeko erabakirik ez dagoela agerian utzi zuen. Batasuna bakartzeko zentsura mozioak aurkeztea eskatu zuen PPK, eta PSE-EEk bat egin zuen Iturgaitzekin.

Arzalluzek uste du urrats bat egin zutela atzo. Ez zuen azalpen handirik eman, baina bile-

raren ostean, sartzean baino «itxaropentsuago» zegoela jakinarazi zuen.

Idea bera azpimarratu zuten beste mintzakideek. Hala ere, itxaropen handiena Jauregik azaldu zuen. Sentitzen zuena islatzeko, kazetariaren lekua hartu zuen: «Izenburu bat jarri behar banu, honako hau aukeratu nuke: norabidea aldatzeko

urrats handi bat egin dugu». PSE-EEkoak gogoratu zituen alderdien artean azken urte hauetan izan diren ika-mikak, eta aro hori atzo amaitu dela jakinarazi zuen.

Ezkerren artean Iturgaitz zegoen, besteak beste, EAJk eta EAK ez zutelako bat egin PP-PSOE itunarekin eta Batasuna bakartzeko eskaerarekin.

aurrerapen medikoak, s.a.

psikiatria zerbitzua

AMSA

Afektibitate arazoak • Elikadura arazoak

Alkoholismoa • Psikosi larriak • Psikogeriatria

SARTZE PSIKIATRIKOAK (I.M.Q.) (AEGON)

LARRIALDIK GAU ETA EGUN

Guimón Klinika:  
Manuel Allende K/., 24 - 5. solairua94 444 70 71  
48010 BILBO

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

GIPUZKOAKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALAK  
(Donostia, Eibar, Irún)

MATRIKULA LIBREA

2001/2002 Kurtzarako sobrea jasotzeko epea martxoaren 1etik 22ra izango da.

OHARRAK:

Argibide gehiago jaso nahi izanez gero, interesatuak jo beza dagokion Hizkuntza Eskola Ofizialera.

-Irún: 943.623381 (Bulego orduetan)

-Eibar: 943.200618 (24 orduz erantzungailu automatikoa) eta web orria: www.euskalnet.net/eoieibar

-Donostia: 943.286311 (24 orduz erantzungailu automatikoa) eta web orria: www.eoidonheo.org